

AURKEZPENA

Gaur egungo bizitzaren erritmoa oso azkarra da, hau da, betebeharrak asko ditugunez, ez diegu arretarik jartzen xehetasun txikiei, esate baterako, giltzak galtzea askoren buruhaustea izan daiteke. Hau izan zen gure txiparen sorreraren arrazoi nagusia eta horregatik, taldekide guztiak arazo berdina gurelako ohartzeko, honi irtenbide bat eman nahi izan genion eta txip eta aplikazio bat garatu ditugu.

Gure proiektuak bi zati ditu: lehenengoa, txipa, *“Ping GPS”* izenekoa eta bigarrenik, aplikazioa, *“My key finder”* izenekoa. Proiektu honen xedea, alde batetik, giltzak bilatzen denbora aurreztekoa da, eta bestetik, ahal den moduan, egunerokotasunerako laguntza bat ematea.

Guk, Leire Alustizak, Jon Agirrek, Iker Blancok, Iñigo Samaniegok eta Jone Etxeberriak, *“JIL”* taldeari izena ematen diogu. Urretxu Zumarraga Ikastolako lehenengo batxilergoko ikasleak gara eta gure proiektuarekin gizartearen arazo txiki hau konpondu nahi dugu. Gure helburu nagusia gure produktuak arrakasta izateaz gain, gizarteari laguntzea da.



JIL